

## 5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroengana heltzeko, gure furgonetarekin, puntu estrategiko batean jarriko gara, hau da, jende asko pasatzen den leku batean, bezeroaren atentziora deitzeko kartel handiak eta deigarriak jarri eta eskaintzen ditugun produktuak iragarri.

Gure produktua ahal den jende guztiari heltzeko web orrialde bat egongo da, gure enpresari buruzko informazio guztiarekin. Gainera, sare sozial ezagunetan gure produktuen iragarkiak ipiniko ditugu, esate baterako, Youtuben edo Instagramen.



Horrez gain, bezeroa erosketara egiterako orduan, gure enpresak eskaitzen duen janaria agertzen den foileto bat emango diogu, berriz etortzeko edo lagun bati emateko. Horrela, bezero gehiago lortuko dira, horiek leialtzeaz gain.



Bezero-segmentu guztiak heltzea da enpresaren helburuetako bat, beraz, umeentzako menu bat eskainiko dugu, gluten gabeko janaria, kaloria gutxiko produktuak eta, hori gutxi balitz bezala, barazkiz bakarrik sukaldatu eta prestatutako janaria eskainiko dugu, segmentu beganoaren premiak ere betetzeko.

Bestalde, prezio baxuzko produktuak eta prezio altuagokoak eskainiko dira, pertsona guztien ekonomia egoerara moldatuko direnak.



Informazio guzti hau gure iragarki deigarrietan agertuko da.